

2022

# Prestakuntza- Jardueren

**PROGRAMA**

IRAILA - ABENDUA



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA  
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA

NAVARRA · NAFARROA

# PRESTAKUNTZA-JARDUEREN PROGRAMA

Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoak, oporren ondoren, 2022ko hirugarren lauhilekorako prestakuntza-proposamen hau aurkezten dizue.

Lauhileko honetarako plangintza osoa online egingo da. Eskaintza batzuk zuzenean izango dira eta beste batzuk plataforma digitalen (moodle) bidez, prestakuntza hori errealitate eta disponibilitate ezberdinetara moldatu ahal izatearren. Online aukera ere interesgarria da lurralde osoko pertsonak sarzkeko aukera izango baitute.

Prestakuntza-eskaintzan honako hauek izango ditugu: bi ikastaro eta bi mintegi online edo webinarrik eta gure batzordeek sortutako prestakuntza-eskaintza batzuk (horien berri behar den unean emango dizuegu).

## 1. IKASTAROKAK

Gure lanbidean aritzeko gure trebetasunak eta gaitasunak hobetzen laguntzen duten prestakuntza-jarduerak. Lauhileko honetarako honako ikastaro hauek planifikatu ditugu:

- **“GIZARTE-LANGINTZA LARRIALDIETAN”.  
GAITASUN SOZIALA**  
ALMUDENA CASTILLO  
90 ordu  
aptitudsocial.com  
Plataforma teknologikoaren bidez egingo da ikastaro.
- **“GIZARTE-LANGINTZAN ERALDAKETA  
DIGITALERAKO OINARRIZKO ERREMINTAK”**  
MARTA DE IRIZAR MALO  
merakisociosanitario.com  
10 ordu  
Online ikastaroa zuzenean (webex)

## 2. ONLINE MINTEGIA / WEBINARRA

Gure ustez, beharrezkoa da topaketak sustatzea eta gaiak, praktikak eta egiteko moduak partekatzea, beste elkargokide batzuk inspiratu ahal izateko. Nafarroa osoko elkargokideak bertan izate aldera, hauek online egitea pentsatu dugu. Hona hemen lauhileko honetarako proposatutakoak:

- **“ZER DA GIZARTE-LAN KLINIKOA ETA ZEIN DA ESPAINIAN EGUN DUEN EGOERA”.  
GIZARTE-LAN KLINIKOAREN ESPAINIAKO INSTITUTUA**  
JONATHAN REGALADO  
Irailak 22  
17:00etatik 19:00etara.  
ONLINE  
Webex Plataforma
- **“GIZARTE-LANGINTZAKO SISTEMATIZAZIOAREN ERRONKAK”**  
DAVID MUSTIELES -HACERLOBIEN.NET  
Azaroak 14  
17:00etatik 18:30era  
ONLINE  
Webex Plataforma

(\* ) OHAR ARGIGARRIAK

# IKASTAROAK

## 1

### “Gizarte-langintza larrialdetan”. Gaitasun soziala

ALMUDENA CASTILLO  
aptitudsocial.com

**PLATAFORMA  
TEKNOLOGIKOA**

**90 ORDU**

**DATAK:** 2022ko IRAILAren 27an hasi eta AZAROaren 30ean amaituko da. Iraupena 9 aste.

**IZEN-EMATEKO EPEA:**  
2022ko irailak 22

#### **PREZIOA:**

50 € Langabezian eta zaintzak direla-eta eszedentzian dauden elkargokideentzat, aurre-elkargokideentzat eta Gizarte Langintzako ikasleentzat.

60 € Nafarroako elkargokideak (jardunean daudenak).

70 € Gizarte Langintzako beste Elkargo batzuetako elkargokideak.

80 € Gainerako pertsonak.



Garai aldakor eta nahasian bizi gara, eta garrantzitsua da era guztietako egoeretarako prestatuta egotea, Gizarte Langintzako profesionalen lana behar izan daitekeenean (osasun-krisiak, krisi ekonomikoak, naturalak, e.a.).

Errealitatea eta premiak aldatu egiten dira eta horiekin batera esku-hartze soziala ere bai, aldaketa eta behar horietara egokituz.

Egoera horiek artatzeko, beharrezkoa da horiek eta egoera horietan egin daitezkeen lanak ezagutzea, horietan murgilduta

aurkitzen diren pertsonen onerako.

**+ Info  
Izen-ematea**

# IKASTAROAK

## 2

### “Gizarte-langintza eraldaketa digitalerako oinarritzko erremintak”

**MARTA DE IRIZAR MALO**  
[merakisociosanitario.com](http://merakisociosanitario.com)

**ONLINE**

**10 ORDU**

**GUTXIENeko TALDEA:**  
10 PARTE-HARTZAILE  
(GEHIENEZ 25).

**DATAK:**

IRAILAK 28, asteazkena  
eta URRIAK 5, 19 eta 26,  
asteazkena.

**IZEN-EMATEKO EPEA:**  
2022ko irailak 21.

**ORDUTEGIA:**  
16:00etatik 18:30era.

**PREZIOA:**

40 € Langabezian eta zain-  
tzak direla-eta eszedentzian  
dauden elkargokideentzat,  
aurre-elkargokideentzat eta  
Gizarte Langintzako ikas-  
leentzat.

50 € Nafarroako elkargoki-

deak (jardunean daudenak).

60 € Gizarte Langintzako  
beste Elkargo batzuetako  
elkargokideak.

70 € Gainerako pertsonak.

Aro digitalak denbora  
darama Gizarte Langintzaren  
lanbidean. Azken 20  
urteetan, tresna digitalak  
agertzen joan dira pixkanaka-  
pixkanaka, eta horiek, egun,  
ezinbestekoak dira gure  
lanbidean; hala nola, posta  
elektronikoa, internet, office  
artxiboak, mugikorra, e.a.

2020az geroztik, boom  
teknologikoa ezinbesteko  
bihurtu da gizarte osoaren  
bizitzan, digitalizazioa  
hedatu egin da, eta,  
profesional on gisa, mundu  
digitalaren nondik norakoak  
jakin eta ezagutu behar  
ditugu, artatzen ditugun  
pertsonekin lan egiteko.

Ikastaro honetan, 4 tresna  
erabiltzen ikasiko duzu:  
Trello, Google Drive, Google  
Forms eta Canva. Besteak



beste, prozesu hauek nola  
egin ikasiko duzu:

- Artxiboak eta dokumentuak antolatzea
- Plantillak sortzea
- Partekaturiko lan-espazioak
- Urrunetik lan egiteko aukera
- Prozesuen automatizazioa
- Denboraren kudeaketa
- Proiektuetarako dokumentuak eta grafikoak sortzea

Eta hori nahikoa izango ez balitz, erreminta ezberdinen gaineko balio handiko *tip*-ak lortuko dituzu, erraz aplikatu eta emaitza onak lortu ahal izateko.

Prestakuntza honetan ez da beharrezkoa aurretik tresna horiek ezagutzea; izan ere, zerotik hasiko denez, edozein profesionalak ikasi ahal izango du 4 erreminta horiek erabiltzen.

**+Info**

**Izen-ematea**

# Online MINTEGIAK/ WEBINARRAK

## 1

**“Webinarra.  
Zer da Gizarte-lan  
Klinikoa eta zein da  
Espainian egun duen  
egoera”**

**JONATHAN REGALADO**  
GIZARTE-LAN KLINIKOAREN  
ESPAINIAKO INSTITUTUA



NAFARROAKO, BIZKAIKO,  
GIPIZKOAKO ETA ARABAKO  
GIZARTE LANGINTZAREN  
ELKARGOAK ANTOLATUTAKO  
WEBINARRA.

### ONLINE WEBEX

#### 2 ORDU

#### DATA:

IRAILAK 22, osteguna

#### IZEN-EMATEKO EPEA:

2022ko IRAILAK 17

#### ORDUTEGIA:

17:00etatik 19:00era.

**DOAKOA** Nafarroako, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako elkargokideentzat eta aurre-elkargokideentzat.

Gizarte Lan Klinikoa XX. mendeko 60ko hamarkadakoa denez, ez da zerbait berria, baina Gizarte Langintzako nahiz beste diziplina batzuetako profesionalen zati handi batek ezagutzen ez duen espezialitatea da; izan ere, gure herrialdean, oraindik garapen- eta finkatze-prozesuan aurkitzen da.

Gizarte Langintzako gero eta profesional gehiago gerturatzen ari da espezialitate horretara, eta informazio eguneratua bilatzen du, bertan murgiltzen hasi ahal izateko, bai interes orokorrarengatik, bai

espezializatzeko erabakia hartzen laguntzeagatik.

Jarduera akademiko hori Gizarte Lan Klinikokoaren Espainiako Institutuaren konpromisoan sartzen da, Gizarte Lan Klinikoa hedatu eta ezagutzera emanaz, gure herrialdean espezialitate hori garatzeko eta finkatzeko beharrezko urratsa dela uste baitugu.

**+info**  
**Izen-ematea**

# WEBINARRAK

## 2

### “Webinarra. Gizarte-langintzako sistematizazioaren erronkak”

**DAVID MUSTIELES**  
hacerlobien.net

**ONLINE WEBEX**

**1'5 ORDU**

**DATA:**  
AZAROAk 14, astelehena

**IZEN-EMATEKO EPEA:**  
2022ko AZAROAk 10

**ORDUTEGIA:**  
17:00etatik 18:30era.

**DOAKOA** Nafarroako, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako elkargokideentzat eta aurre-elkargokideentzat.



Sistematizazioa praktikari buruzko hausnarketa eta interpretazio kritikoko prozesu bat da, eta esperientzia horretan esku hartu duten faktore objektibo eta subjektiboen berreraikitze eta antolamenduan oinarrituta egiten da, ikaskuntzak atera eta partekatzeko. Prestakuntza-ekintza honetan, lehenik eta behin, sistematizazioaren oinarriko elementuak jorratuko ditugu: kontzeptua, aurrekari historikoa, motak eta helburuak. Bigarren, berriz, gure praktika

profesionalaren sistematizazioak burutzeak egun dituen erronkak identifikatuko ditugu. Erronka horiek lau kategoriatan sailkatzen ditugu: sistematizazioari berari buruz dugun ikuspegiarekin lotutakoak, jarrerazkoak, erlazionalak eta teknikoak. Erronka horiek berrikusiko ditugu, horietako bakoitzaren funtsezko elementuak identifikatuz.

**+info**  
**Izen-ematea**

(\*)

## OHAR ARGIGARRIAK

PRESTAKUNTZAREN INGURUKO INSKRIPZIOEI, ORDAINKETEI ETA ITZULKETEI BURUZKO OHAR ARGIGARRIAK:

- Emandako inprimakien bitartez **inskripzioak egitea** eskainitako proposamen baterako.
- Pertsona bat erregistratu bada baina azkenean ezin badu izena emandako prestakuntzara joan, **hori hasi aurretik**, ahalik eta azkarren jakinarazi behar du, egingo duen jendearen datu errealak izateko, gainerako pertsonen eragozpenik jarri gabe, prestakuntza hori egiteko kopuru nahikoa baden jakinda.
- **Behin prestakuntza kobratuta, norbaitek baja eman nahi badu** prestakuntza hasi aurretik, ordaindutako ZENBATEKOAREN %75 ITZULIKO ZAIO.
- **Behin prestakuntza kobratuta, norbaitek baja ematen badu** ikastaroa hasi ondoren, EZ ZAIO EZER ITZULIKO.



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA  
NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA  
NAVARRA · NAFARROA

---

[www.trabajosocialnavarra.org](http://www.trabajosocialnavarra.org)

Manuel de Falla, 12 • Entpta. Of. 2 / 31005 Pamplona • Iruñea Nafarroa / Tlf.: 948 240 401